

ARABAKO MENDIALDEKO GORDELEKUAK

ISAAC PUENTEREN IBILBIDE HISTORIKOA

Arraia-Maeztuko jendearen esanetan, zonaldean izandako medikurik hoberena izan zen Isaac Puente. Gaixo guztiak, pobre zein aberats, maitasun eta gizalege handiz artatzen zituena. Baina, anarkista, naturista eta mendizalea ere bazen. Eta, beste askorekin gertatu bezala, Gerra Zibilean atxilotu, kamioi batera igoarazi eta bizitza kendu zioten bide-ertz batean. Gatibu hartu aurreko egunetan, mendian gordeta ibili zen, zonaldeko beste kide batzuekin batera. Non aritu ziren, harat-honat; zein menditan, haitzetan, kobazulotan ezkutatu behar izan ziren jakiteko asmotan, hamaika txango egin dugu inguruko parajeetan.

Peña Rasgadako igarobidea

TESTU ETA ARGAZKIAK




Arantza Jausoro
Marugan
(Gasteiz, 1967)

EMFren presidente ohia.



Iñaki Barona Urbina
(Gasteiz, 1967)

IKA euskaltegiko irakaslea eta bide-teknikaria.





I. ARRAIA-MAEZTU: ENTZIA MENDILEROAREN ATEA

Maeztutik aterako gara, gaur egungo uda-letxetik, Vasco-navarro trenaren geltoki zaharberrietatik (644 m). Iparraldera abiatuko gara, Leortza aldera, Vasco-navarro trenaren kalean barna, etxe txikiak atzean utzi arte. Metro batzuetara eskuinera joko dugu,



Gesal pasabidea



ekialderantz, San Juan bidetik. Legarrezko bidea zabala da, eta hori segituko dugu, mendia aurrean dugula, Igoroin errearen gaineko zubia gurutzatu eta mendiko etxe bateraino heldu arte. Bertan, bide-erakusle bat topatuko dugu. Ataurirako bidea hartuko dugu, eskuinera, eta 70 bat metro egin ostean, ezkerrera doan xenda estu bat ikusiko dugu. Hortik joko dugu gora, Gesal pasabidea jomuga izanik.

II. KOBAZULO ARTIFIZIALA ETA ZABALEGIKO ESKULTURA

Nahiko modu erosoan ibiliko gara, desnibela apurka-apurka gainditzen. Basoa ixten deanean, ezkerrera bihurgunea markatzen du bideak, eta argindar dorreentzako kamino batera aterako gara. Bidean, erkametzak, elorri beltzak, haritzak, astigarrak, gorostiak eta ipuruak topatuko ditugu. Metro gutxi batzuk eginda, eskuinera jo behar dugu, langa eta metalezko pasabide bat aurrean ditugula. Bidezidorra galdu gabe jarraituko dugu gorantz. Ezkerrera kobazulo artifizial bat atzean lagako dugu, eta erkametz handien artean segituko, zenbait gunetan harri-piloie erre erreparatuta haitz arteko pasabide ikusgarri batera heldu arte. Arroken igarobidearen gainean Gesal mendi-lepora iritsiko gara, eta eskuinera jota, Zabalegi mendiko eskultura topatuko dugu, berrehun bat metro kordaletik ibili ostean (865 m).

Zabalegiren eskulturak



III. PEÑALASCINCOKO KANPAI-HOTSAK

Kordal horretatik segituko dugu altuera hartzen, ezkerrera bira eginda, Zabalegiko tontorrera iritsi arte (865 m). Ez dugu bertan postontzirik aurkituko, pare bat harri-meta baizik. Goitik jarraitu beharrean, ezkerrera, ekialderantz jaisten hasiko gara, mendi-bide batekin topatu arte. Eskuinera hartuta, hegoalderantz, Peñalascinco aldera joko dugu goi-larretan barna. Hamar bat minutu pasata, seinale-zutoin bat ikusiko dugu, eta hari kasu eginda, eskuinera egin, eta bost bat minutu igaro orduko, Peñalascincoko gailurrera ailegatuko gara (907 m). Gurutze moduko kanpaiak izango ditugu aurrean, harrizko talaia paregabean. Atzera egingo dugu, zapal dutako basabide beretik, gibelean utzitako PR-A-59ko zuntoraino.




Peñalascincoko kanpaiak

IV. PEÑA RASGADA, PARAJE ZORAGARRIA

Oraingoan, Arburu goi-lautadaraino norabidea hartuko dugu, ekialderantz jota. Hamar bat minutu iragan, eta beste bide-erakusle bat topatuko dugu. Ataurira joko dugu, tentu handiz lehen metroetan, adi-adi eta harri-metei begirik kendu gabe, ez baitago argi markatuta zer xendra jarraitu. Ezkerrera, basora sartzeko soilgune batean, harri-piloa ikusiko dugu, eta hark erakutsiko digu nora joan. Basoan barre-

na, mantso arituko gara bide harritsu batetik. Aldapa labur bat jaitsita, begiak ongi zorroztu beharko ditugu, zer eta, Ataurira doan bidea lagata, Tobera erreka sortutako bidean, ezkerre, seinale-zutoin bat begiztatzeko. Hara abiatuko gara. Bertan, Arburu mendirako noranzkoari ekingo diogu. Berehala langa gainditzeko pasabidea kausituko dugu, harkaitz erraldoi baten magalean. Handik aurrera, goialdera iritsi arte, men egingo diegu bidezidorra markatzen duten seinale guztiei. Peña Rasgadan gaude; paraje zoragarria, benetan.

Peña Rasgadako xenda



V. OBI HAITZA: HAINBAT SEKRETUREN GORDELEKUA

Arrokaren babesean ibiliko gara, Ortqueta ize-neko zonaldera heldu artio, murrutxo izugarri baten pean igarobide estu eta meheak zeharkatuta. Pixkanaka-pixkanaka azken malkarrak igo, eta gainaldea hartuko dugu. Behin goian, pago artean garela, ezkerre egingo dugu, amildegiarekin batera, eta haitz ertzetik ibiliko gara, Santa Ageda mendi-kaskoraino (1041 m). Bazterretik jarraituko dugu, ipar-ekialderantz, Arburu mendia begi-bistan dugula. Aurki iritiko gara erpin geodesiko albo postontzira. Ibilbidearen punturik altuena da hau; behatoki paregabea, zinez (1048 m). Hirugarren gailurrera bidean, adi-adi ibiliko gara norabidea aldatu barik, arrokaren hegaletik gertu. Basabide estu batetik, ezpel eta haginaren artean, bertatik bertara helduko gara Mendibibila tontorreraino (1043 m). Puntan, sasitan, harri-piloa dago. Ordura arteko noranzko berari jarraituta, ezkerre eta beheara jaisten den bidezidor zabala aurkituko dugu. Horra joko dugu ausarki, eta zuzen segituko dugu hautatutako bidetik, albo bietara ateratzen diren adarrei jaramonik egin gabe. Ataurirako posteraino joan, eta Obi haitzera joko dugu oraingoan. Gesal aldera joango gara, lehenago egin dugun bide beretik. Gesal lepora iritsita

eta bertako pasabidea aurrean daukagula, igotzen egindako bidexka baztertu, eta eskunera egingo dugu harri-metei kasu eginda. Erkametzen arteko harrizko xendratik abiatuko gara ibilaldiaren azken mendi-gailurrera. Aldats gora ari garela ia konturatu gabe, Obiko haitzean izango gara segituan. Goitik, harkaitzen hegitik, Maeztu ikusten da ederto askoan. Isaac Puentek bertatik begiztatu zuen familiak etxeko leihoan jarritako argia, arriskuaz ohar-tarazteko adostutako zeinua.

VI. EZKUTATZEKO LEKURIK HOBERENA

Ekialdera egingo dugu, aldapan behera. Metro batzuetara, Obi kobazuloarekin egingo dugu topo. Bertan, hainbat gau pasatu zituen isil-gordeka Isaac Puentek. Beste pixka bat jaitsiko gara. Behin bidera aterata, ezkerrera egingo dugu, iparralderantz. Segituan beste seinale bat topatuko dugu, eta Maezturako aukera hartuko dugu bertan. Bidexka zabalduz doa, eta handik behera egingo dugu, Basabarri izeneko parajetik, burdinazko ate berde bateraino. Hesia gurutzatuta, ez eskuin ez ezker, zuzen-zuzen jarraituko dugu, aurrean dugun bidetik jaisten, San Martin basilizaraino. Metro gutxira San Juan bidera irtengo gara, eta hortik, galtzeko inolako arriskurik ez dugula, Maezturako azken urratsak emango ditugu.

ISAAC PUENTE AMEZTOI

Isaac Puente aitzindaria izan zen jorratu zituen arlo guztietan. Osasungintza publikoaren aldekoa izanik, hamaika liburu argitaratu zituen horren defentsan, gaixoen eskubideak eta duintasuna aldarrikatzea xede. Anarkista eta mendizale amorratua izan zen, eta CD Alaves mendi-klubarekin finalista izan zen, 1926ko ehun-mendi txapelketan. Kiro-laria eta ekologista; Alpinismo liburua idatzi zuen, baita Arabako basoen gaineko ustiapen orekatuaz hainbat ikerketa ere. Naturista sutua; gogoan izatekoa 1934an Gasteizko Ursulinas moja eskolaren aurrean antolatu zuen Picnic nudista. Baina, aurrendari eta gainerako adjektibo guztiez gain, onbera, bihotz onekoa, solidarioa eta eskuzabala zen. Eta horregatik desagerrarazi zuten, duina, eredugarria eta maitatua zelako.



Obi haitzen postontzia

INFORMAZIO OSAGARRIA

Ibilbide mota	Zirkularra
Irteera-Helmuga	Maeztuko udaletxea.
Aparkalekua	Bai
Distantzia	12,3 km.
Gutxieneko altuera	644 m.
Desnibel metatua	986 m.
Gehienezko altuera	1048 m.
Iraupena	3-4 h.

BIBLIOGRAFIA

- Fernandez de Mendiola, Francisco (2007): *Isaac Puente, el médico anarquista*. Ed. Txalaparta
- Barona Urbina, Iñaki (2017): *Herriko medikua, herriaren osagilea*. Herrialdizkaria 22 zbk.

Obiko kobazuloa

